



TAKeko neskek Gipuzkoako Ligaxka eta Txapelketa irabazi dituzte

TOLOSALDEA ▶ Jubenil-senior mailakoentzat bezala, Tolosaldeko Arraun Klubeko beste batelentzat ere «bikaina» ari da izaten lehendabiziko denboraldia ▶ 2



Tolosaldeko Arraun Klubeko nesken taldeak. Infantil-kadete mailakoak hirugarren izan dira; mutiletan, jubenilak eta infantilak hirugarren sailkatu dira, eta kadete mailakoek bosgarren postua lortu dute. HITZA



Arregi, Otaño eta Lasa, Tolosako zezen-plazan. JON URBE / ARGAZKI PRESS

UNAI OTAÑO ▶ AIZKOLARIA

«Errebantxa hartu nahi badu, onartuko genuke»

Ibartarrak Olasagastiren aurkako aizkora apustua irabazi du Lasarekin ▶ 6

LEITZA ▶

Nafarroako Kantu Jaialdiak amaitu dira

«Interpretazio heldutasunaren» eta talde lanaren» aipamenak, Leitzara ▶ 7

hitza
argazki
lehiaketa



opor hauetan atera argazkiak

ARGAZKIAK NORA BIDALI

- ▶ P. elektronikoa: tolosaldean@tolosaldekohitza.info
 - ▶ Postaz: Argazki lehiaketa. Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza. Araba etorb 5, atzea • 20400 TOLOSA
- Nahi baduzu, argazkiak Tolosako edo Leitzako HITZAren egoitzetara ekarri
- OINARRIAK:** www.tolosaldekohitza.info

Sari nagusia



Bidaia Agentzia bidaide

www.bidaide.gruposercor.com

BIDAIA paregabe bat zure neurrira

2 laguntzat 5 eguneko egonaldia, mantenu erdiarekin Asturiasen edo Costa Bravan



Erniobera, 6-behea • 20150 Villabona
Tel.: 943 692 693
bidaide@gruposercor.com

ZOKETA APARTAK



PARTE-HARTZAILE ETA BOTOEMAILE
guztien artean HITZAren motila eta mediko gerriko poltsa zozkatuko dira



TOLOSA ▶ BATELAK

Gipuzkoako Ligaxka eta Txapelketa irabazi dute TAKeko neskek

Jubenil-senior mailako neskek bezala, Tolosaldeko Arraun Klubeko besteak ere denboraldi arrakastatsua ari dira egiten



Emakumezkoen jubenil-senior taldea, bi banderak atzean dituztela. HITZA

ESTI EZEIZA

Asteburu bikaina izan da aurrekoa Tolosaldeko Arraun Klubarentzat (TAK). Pasai San Pedron jokatu ziren batel estropadak, eta maila guztietan ere bikain aritu ziren eskualdekoak. Larunbat arratsaldean Gipuzkoako Ligaxkaren azken jardunaldia jokatu zen, eta han sortu zen lehen albiste gozoa: jubenil-senior mailako neskek txapeladun. 9 minutu eta 56 se-

gundoko denborarekin, bandera eta urrea etxera ekarri zuten. Hurrengo egunean, berriz, Gipuzkoako Txapelketa jokatu zen toki berean, eta han, oraindik ere albiste hobek: txapelketa bat eta hirutan hirugarren postua Tolosaldekoentzat.

Nahiz eta hasiera batean zortzi izan, denera, sei jardunaldi jokatu dituzte arraunlariek Gipuzkoako Ligan. Txapelketa honetan sei mailatako taldeak lehiatu dira, eta TAKeko

postek hartu dute parte. Aurretik, gainera, Tolosaldeko Arraun Klubeko lehen urtea izan da, eta denboraldiko sorsapena atseginena izan dira. Jubenil-senior mailako neskek ez baitira izan domina irabaztea lortu duten eskualdeko bakarrak; jubenil mailako mutilak, infantilek eta infantil-kadete neskek, esaterako, hirugarren postua eskuratu dute.

Gipuzkoako Liga honen ondoren, Euskal Herriko Txapelketa lehiatuko dira orain. Estropada hauek hilaren 22an eta 23an jokatu dira, Sokoa eta Donibane Lohitzunen. Hala, orain arte erakutsitako maila onari eutsiz gero, han ere lehenen artean ibiliko dira eskualdekoak.

TAK ▶

PALMARESA

Jubenil-senior neskek.

- ▶ Gipuzkoako txapeladun.
- ▶ Gipuzkoako ligaxkako irabazle.
- ▶ Hiru estropada irabazi dituzte.

Jubenil mutilak.

- ▶ Gipuzkoako Txapelketa hirugarren.
- ▶ Gipuzkoako Ligaxkan hirugarren: A batela.

Infantil mutilak.

- ▶ Gipuzkoako Txapelketa hirugarren.
- ▶ Gipuzkoako txapelketa ziboga onena: Jon Gago.

Infantil-kadete neskek.

- ▶ Gipuzkoako txapelketa hirugarren.

SAILKAPENA ▶

GIPIZKOAKO TXAPELKETA

Infantil-kadete neskek.

1. Koxtape
2. Aita mari
3. TAK
4. Zarautz
5. Sanpedrotarra

Infantilak.

1. Hondarribia
2. Sanpedrotarra
3. TAK
4. Orio
5. Zarautz

Kadeteak.

1. Orio
2. Aita mari
3. Getaria
4. Koxtape
5. TAK
6. Zarautz

Jubenil mutilak.

1. Orio
2. Koxtape
3. TAK
4. Sanpedrotarra
5. Illunbe
6. Getaria
7. Aita mari

Jubenil-senior neskek.

1. TAK
2. Orio
3. Getaria
4. Kiriko
5. Sanpedrotarra

AISIA ▶

Haurrentako ludotekak Aste Santuetako egunetan

E. EZEIZA

Belauntza, Leaburu-Txarama, Oresa eta Gazteluko udalek haurrentzako ludotekak antolatuta dituzte hilaren 21a arte. Belauntzako Kultur Etxean irekita egongo da, 10:00etatik 13:00etara. Gaztelukoak eta Leaburu-Txaramakoak ere ordutegi bera izango dute: lehendabizikoa herriko elkartearen egongo da; Leaburukoa, berriz, Gazte gelan; eta Txaramakoa, Kultur eta Osasun zentroan. Oresakoa 15:00etatik 18:00etara zabalduko dute, udaletxeko ganbaran.

Eskulan eta jolas desberdinak egiteaz gain, egun bereziak ere izango dituzte gaztetxoek. Hasteko, gaur, 11:00etan, Ixabel Agirresarobe ipuin kontalaria ariko da Belauntzako udaletxean. 20an, 17:00etan, Enkarni Genuaren *Erreka Mari* txotxongilo ikuskizuna izango da Oresako udaletxeko ganbaran. Ekitaldi eta ikuskizun hauek haurrentzako izan arren, antolatzaileek guraso eta herritar guztiak gonbidatu dituzte.

TOLOSA ▶

Asteburu mugitua saskibaloizaleentzat

E. EZEIZA

Emaitza oso ezberdinak utzi dituzte oraingo honetan herriko saskibaloizaleek. Seniorretan, gutxiatik, baina Santurtzikoei irabazi zieten Tolosa Aralarrekoiei, 55-51. Kadeteek, berriz, zorte handiagoa izan zuten, eta erraz irabazi zuten partida: Tolosa Argysan 83-A. S. Urkitza 25 amaitu zen norgehiagoka. Hirugarren dauge sailkapen nagusian; hori dela eta, datorren urtean lehenengo mailan jokatu ahal izango dute. Infantilen mailan, Tolosa Argysan A-k irabazi egin zuen Arizmendi-Mugarriren aurka, baina Tolosa Argysan B-k galdu Andraitz K.E. ren kontra. Aste Santuetan ez dute partidurik jokatu.



TOLOSako UDALA

IRAGARKIA

Tolosako Udalak, bi mila eta seiko martxoaren 28an egindako Osoko Bilkuran, ondorengo oinarriak onartu zituen. Voith-Gonostidi eremuko Toki-Babeseko etxebizitzaren erregimen juridikoa arautzeko behin-betiko oinarriak eta eremu horretako Babes Ofizialeko etxeak adjudikatuko behin-betiko oinarriak.

A. TOKI-BABESEKO ETXEBIZITZAK:

- ▶ IZENA EMATEKO EPEA: 2006ko maiatzaren 2tik irailaren 30 arte (biak barne).
- ▶ BALDINTZAK:

- Tolosan erroldatuta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera, edo udalerrian 15 urte bizi izana.

- Ez izatea etxebizitzarik ez jabetzan, ez jabeago soillean, ez lurrazal eskubiderik edo usufrukturik [oinarrietan agertzen diren egoera partikularretan ezik].
- Diru sarriak: gutxienez 12.000 euro eta gehienez 43.000 euro. Kontutan hartuko den zergaldia 2005. ekitaldian dagokiona izango da.

B. BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK:

- ▶ BALDINTZAK:
- Altan emanda egotea Etxebiden.
- Tolosan erroldatuta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera.
- Aukera izango dute Etxebideko Eskatzaileen Erregistroan Altan emanda egonda, 2003ko urtarrilaren 1ean Tolosan erroldatuta ez daudenak, baldin eta Tolosan 15 urtez bizi izan badira.

Gainerako baldintzei dagokienez, babes ofizialeko etxebizitzetara buruzko legeriak ezarritako aplikatu da.

Tolosa, 2006ko apirilaren 6an
ALKATEA - Jokin Bildarratz Sorron



TOLOSako UDALA

IRAGARKIA

Udalbatzak, 2006ko martxoaren 28an egindako ohiko bilkuran, Tolosako Udala Planeamenduko Arau Subsidiarioen Berraztertze Aurrerakina tramitean jartzea erabaki zuen.

Planeamendu Araudiko 125. artikuluko xedatutakoaren arabera, aurrerakina HOGETA HAMAR EGUN jendaurrean jarrita egongo da.

Espedientea jendaurrean jartzeko arrazoia hau da: korporazio, elkarte eta partikularrek edozein iradokizun edo planeamenduko beste aukera batzuk aurkeztu ahal izatea. Iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Berria, Diario Vasco eta Hitza egunkarietan argitaratuko da. Aurrera aipatu den epea azken iragarpena kaleratu eta biharamunetik hasiko da kontatzen.

Epe horrek dirauen bitartean, espedientea ikusi eta aztertu nahi duenak eskura izango du Tolosako Udaletxeko Hirigintzako Bulegoetan (Plaza Zaharra, 6-B); alegazioek Sarrera Erregistroan aurkeztu behar dira Tolosako alkateari zuzenduta.

Tolosa, 2006ko apirilaren 3an. - ALKATEA

IBARRA ▶

Meningitis 'ez arriskutsuko' 3 kasu eman dira haurrengan

ERREDAKZIOA

Meningitis birikoaren 3 kasu izan dira Ibarren. Hain zuzen ere, 3 urteko 3 haur dira kutsatuak. Hala ere, meningitisaren kasu hau arriskutsua ez dela eta lasaitasunerako deia luzatu dute.

Pasa den ostiralean antze-man zizutzen kasuak, eta probatxo bat egin ostean arriskurik gabeko meningitisaren aurrean zeudela azaldu zieten kutsatutako haurren gurasoei. Buruaren atzealdean mina, logura handia, sukarra eta botaka egiteko gogoia izan daitezke sintomak, eta horietaz jabetu orduko larrialdietara joatea gomendatu dute, benetan kasu hori den ziurtatzeko. Halaber, zantzarik izanez gero, herriko pediatraren gaita lasai joateko adierazi dute.

TELEFONOAK ▶

**Larrialdiak. ((112))
Osasuna.**

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
 - ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39
 - ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
 - ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
 - ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
 - ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
 - ▶ **Ibarralde.** Osasun etxea: 672411
 - ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
 - ▶ **Iruia.** Osasun zentroa: 690720
 - ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
 - ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
 - ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
 - ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroizko dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
 - ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurrarmendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

TOLOSA ▶ ARETO FUTBOLA

**«Gogor aritu arren»
Laskorainen porrota
liderraren aurkakoan**

Gernika taldea bisitatu zuten horitxoek; partida ona burutu arren, 8 eta 5eko emaitzarekin bueltatu ziren etxera

ERREDAKZIOA

Sailkapeneko buruan den Gernika taldea bisitatu zuen, iragan larunbatean, Laskorainen. Hogeitabost jardunalditan porrot bat bera ere ez du jaso taldeak, eta jakin bazekiten horitxoek lan nekeza izango zutela Gernika garaitu ahal izateko, taldeko arduradunek jakitera eman dutenez. Hala, eta «gogor eta ondo borrokatu bazuten ere», 8 eta 5eko emaitzarekin galdu zuten tolosarrek.

Gernikakoek ez zuten arazo larriegirik izan, Laskorainen aurkako larunbateko neurketan, hasieratik bukaeraraino jaun eta jabe agertzeko. Oraingoan, baina, lehen itzuliko eskarmentua gogoan, horitxoek «lehiarako prest» kantxaratu ziren eta, ekimena aurkariari utzita, banakako defentsa planteatu zuten atzealdean Egizabalen mutilek estrategia bezala, kontraerasora abiadura bilatuz.

Honela, eta presio irteeretan ere «behar zen arreta ipiniz», ikastolakoek aurrea hartu zuten markagailuan, Yustosek kontraerasora ederki sareratu-tako baloi bati esker. 0 eta 1ekoak, ordea, oso gutxi iraun zuten, etxekoek berehala berdindu baitzuten kornen baten ondoren. Partidaren gakoetako bi horietatik izan ziren, gainera: laskoraindarren gol gehienei oso azkar erantzun zieten gernikarrek beste gol batekin, eta horitxoek asko sufritu zutela estrategian —8 goletatik 4 honela jaso baitzituzten—. Bana-



Laskorain taldeko jokalariek «fin» aritu ziren Gernikan. HITZA

ko berdinketa gernikarrek hautsi zuten ondoren; hala ere, Laskorain ez zen behera etorri eta area ertzeko falta batean Alonsok binakoa egin zuen. Gol honi, «nola ez», gernikarrek beste batekin erantzun zioten «berehalakoan»; honenbestez ailegatu zen atsedendia, eta 3 eta 2koarekin aldagela joan ziren bi taldeetako jokalariek.

Bigarren zatian gauzak bere horretan jarraitu zuten, eta etxekoek 4 eta 2koa sartu arren ikastolakoak ez ziren kildu eta bi kontraerasotan bi gol egin zituzten, Gilek lehen-dabizi eta Yustosek berandu-xeago. Amaierarako 8 minutu eskas falta ziren, launako berdinketa oso itxaropentsua zen, are eta gehiago entrenatzaile gernikarrek bost jokalarik besterik ez zituela erabiltzen ikusita.

Baina etxekoek ez zuten horitxoek aurreikusitako behera-kada fisikorik jasan eta azken minutu horietan. «jokaldi zorrotzak josiz eta ate aurrean ezertxo ere barkatu gabe»,

ederki nagusitu ziren aurreko aurkarietara egin duten bezala, «tolosarren itxaropenak ere zapuztuz». Azken minutu horietan ikastolakoen bosgarrena —7 eta 5ekoa zen— Amatriainek egin zuen.

Otxoa gaztea, «bikain»

8 eta 5eko emaitzarekin galdu zuten, bada, Gernika txapeldunaren aurrean Angel jarraitzaileak, Javi delegatuak, Egizabal entrenatzaileak eta Domentxe, Yustos, Amatriain, Telletxea, Saldias —hasierako bostekoa— Gil, Barriola, Alonso, Murgi, Zubillaga eta Alonso jokalariek.

Harrobiari dagokionean, bestalde, Alonso Mourinho-ren lehen filialak 0 eta 5 irabazi zuten Ibarren Denak Tabernaren aurka, hirugarren maila probintzialeko Tolosaldeko derbian. Aipatu behar da Joniko Otxoak lan «bikain» burutu zuela, lau gol sartu zituela, eta «goiko taldean ate joka ari dela mutil hau azken asteotan».

TOLOSA ▶

Hegoaldeko 5. garaipen jarraia lortu du etxean

Gironella taldearen aurka 4 eta 1 irabazi zuten; seigarren da sailkapen nagusian

ERREDAKZIOA

Azken asteotako etxeko partidetako bolada onak jarraitzen du Hegoaldeko nesken-tzat. Hala, iragan asteburuan bosgarren garaipena jarraian erdietsi zuten Virginia Amilibiaren neskek. Azkene-koz, Finques Cadi Gironella taldea izan zuten aurkari. Azken emaitza 4 eta 1ekoa izan zen Hegoalderen alde; sailkapen nagusian, berriz, seigarren dira tolosarrek, 35 puntuekin. Taulako erdigun-ean finkatu dira, beraz.

Ez zuten aurkaririk izan Hegoaldeko; izan ere, norgehiagoka guztian zehar Gironella neskek ez zuten euren tokia aurkitu. Hegoaldeko, aldiz, ondo jokatu zuten. Bisitarien estrategia denfentsa gogorra egitean izanagatik, ez zuten porrota ikandik eta tolosarrek lau bider zulatu zuten haien ate. Lehen gola ohi baino beranduago iritsi zen, Emiren oinetatik, 14. minutuan. Lehen zatia amaitu baino lehen Emik berak egin zuen bigarrena, neurketa erabakiz.

Bigarren zatia ere bide beretik jarraitu zuen eta etxekoek hartu zuten neurketaren kontrola. Bien bitartean, kanpotarrak akats baten zain ziren. Baina ez zen horrelakorik izan, eta Maiderrrek eta Miriamen hirugarren eta laugarren golak sartu zituzten, hurrenez hurren. Amaierarako lau minutu baino geratzen ez zirela kataluniarrek behin betiko 4 eta 1ekoa gauzatu zuten.

TOLOSako UDALA

IRAGARKIA

Gobernu Batzarrek, 2006eko martxoaren 13an, Tolosa N-1 Autobide Azpiko Pasabidetik Larramendi Kalearaino Zerbitzu Sarean obrak egiteko Klausula Administratiboen agiria onartu zuen.

1. **Helburua.** Tolosa N-1 Autobide Azpiko Pasabidetik Larramendi Kalearaino Zerbitzu Sarean obrak egitea
2. **Lizitazioaren zenbatekoa.** - 152.969,99 € (BEZA barne)
3. **Lanak egiteko epea.** 2 hilabete
4. **Espedienteak ikusteko.** Copitec (Gudari kalea 8, behe); telefona: 943 65 40 28 Kopibat (Lizardi plaza 2); telefona: 943 65 51 66
5. **Behin-behineko fidantza.** 3.060 €.
6. **Behin betiko fidantza.** adjudikazio zenbatekoaren %4.
7. **Enpresa-sailkapena:** C TALDEA 6 AZPITALDEA c KATEGORIA
8. **Eskaintzak egiteko tokia eta epea.** Tolosako Udaletxeko Sarrera Erregistroan, plaza Zaharra, 6-B-n, Inargakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2006eko apirilaren 24 eguna, eguerdiko ordu-bata (13:00) arte.

Tolosa, 2006ko apirilaren 5ean. ALKATEA

TOLOSako UDALA

IRAGARKIA

Gobernu Batzarrek, 2006eko martxoaren 13an, San Frantzisko ibiltokiko zati bat oinezkoentzat gertatzeko obrak egiteko Klausula Administratiboen agiria onartu zuen.

1. **Helburua.** San Frantzisko ibiltokiko zati bat oinezkoentzat gertatzeko
2. **Lizitazioaren zenbatekoa.** - 185.399,50 € (BEZA barne)
3. **Lanak egiteko epea.** 2 hilabete
4. **Espedienteak ikusteko.** Copitec (Gudari kalea 8, behe); telefona: 943 65 40 28 Kopibat (Lizardi plaza 2); telefona: 943 65 51 66
5. **Behin-behineko fidantza.** 3.707,97 €.
6. **Behin betiko fidantza.** adjudikazio zenbatekoaren %4.
7. **Enpresa-sailkapena:** G TALDEA 6 AZPITALDEA c KATEGORIA
8. **Eskaintzak egiteko tokia eta epea.** Tolosako Udaletxeko Sarrera Erregistroan, plaza Zaharra, 6-B-n, 20400 Tolosa, 2006ko apirilaren 24 eguna, eguerdiko ordu-bata (13:00) arte.

Tolosa, 2006ko apirilaren 5ean. ALKATEA

GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Ibarrako EAri erantzuna

Ibarrako EAK argitaratutako panfletoan, harrigarriak dira azaltzen diren hitz eta esaldi politen kopurua. Sarritan gertatzen den bezala, egia ezkutatzeko erabili ohi den modu bat besterik ez da; izan ere, hitz polit asko erabili arren, hori ez da beti egia izaten. «Biztanle guztien interesen alde egiteko helburu garbiarekin eta bakarrekin, erantzukizunak bultzatuta, betiere gure herriaren eta herritar guztien alde eginez, parte-hartzean eta aniztasunean oinarritutako kudeake-

taren eredu bihurtzearen» eta antzerako leloek helburu bakarra dute: errealitatea ezkutatzeko.

Bitxia benetan, EAK politikari profesionalak lan hauetan sartu berria den alkatearekiko erakusten duten *eskuzabalasuna*. Ustezko laguntza horren azpian egoera horretaz probetxua ateratzeko asmoa azaltzen da, Ibarrako Udala beraien *kortijo* moduan erabiltzen jarraitzeko nahia. Alkatearen esperientziarik eza ez da EAren haserrearen iturri, alderdi horretako pertsona ezagunen interes ekonomikoen morroi ez izatearena baizik.

Mikel Agirrerren eta Juan Ig-

nacio Arozenaren kargu uzteak ez dute zerikusirik alkateak eurenenganako konfiantza galdu izanarekin, ez eta beren jokabidearekin ere. Hori ez da egia. Arrazoi pertsonalak dira erabaki hauen arrazoi bakarra.

Hirigintza batzordeko buru Luis Ignacio Alonso bere kargutik kendua izan zela egia da. Arrazoi erraz ulertzen da, Ibarrako Udala herriko arau subsidiarioen berrikuspen lanean ari da: non eraiki etxeak, zein lurretan, zein motatako etxeak... Erabaki hauen ondorioz, zenbait familientzako diru sarrera handiak egongo dira. Azterketa horretan murgilduta

egonik, hirigintza batzorde buruak alkatearekin izandako leialtasunik ezak maila guztiak gainditu ditu. Soilik bereak diren interes urbanistikoak ezarri nahi izan ditu, udaletxearen gainetik jarritz, gure herriaren gehiengoaren beharren kontrako proposamenak egin ditu, horregatik kendua izan da bere kargutik.

Ibarrako EAK duen esperientzia politikoa ez izan arren, partidu honek erakutsi duen ustezko biktimitasmoaren atzean zer dagoen badakigu, herriaren jabea izatearen ustea indarrean dagoela, lurjabeen interes ekonomikoa dela EAri interesatzen zaion gai nagusie-

na, pertsona gutxi batzuen interesearekin nahasten duela. Eta alkateari, «beste interesak» edukitzea salatzea, mesedez, lotsa pixka bat izatea ez da txarra izaten.

Hauek dira gure arrazoiak, nahiz eta EAK beste norabide batean sartzen saiatu. Ibarra da gure herria. Batzuetan asmatuz, besteetan hanka sartuz, «esperientziarik ezatik» ehunka ibartarren eta gure herriaren etorkizuna ez hipotekatzeko ahal duguna egiten jarraituko dugu. Hauteskundeetan jasotako babesak hortara behar hartzen gaitu.

TXELO ROMEO ▶ IBARRAKO ALKATEA

UNAI OTAÑO ▶ AIZKOLARIA

«Errebantxa hartu nahi badu, arazorik gabe onartuko genuke»

Unai Otaño ibartarra eta Jesus Mari Lasa legorretara gehiago izan dira Olasagastiren aurkako apustuan

IÑIGO TERRADILLOS

Unai Otaño ibartarra eta Jesus Mari Lasa legorretarra batetik eta Joxe Mari Olasagasti igeldorarrak bestetik, nor baino nor aritu ziren herenegun Tolosako zezen-plazan egindako aiz-

kora apustuan, eta Olasagasti faborito nagusia bazen ere, eta dirua ere bere alde zuen arren, bi gazteak izan ziren garaile hiru minutu pasatxoko aldearekin. Igeldorarrak errebantxa kontuak aipatu omen ditu jada; ikusi behar egingo duten ala ez, eta noiz izango den. Horren inguruan, eta irabazi duen bigarren apustuaz hitz egin du HITZarekin Otaño ibartarrak.

Bigarren apustua, eta bigarren garaipena. Gustura, ezta?

Oso gustura. Apustua oso gogorra egin zaigu Lasari eta niri, asko entrenatu baikara urtarrietatik aurrera, eta lanetik atera eta 21:00ak edo 22:00ak bitarte egon izan garelako aizkorarekin. Horregatik, egindako lanak fruituak eman dituelako, oso pozik gaude.

Noiz jakin zenuten apustua zuena zela?

Etzandakoetan 4. emborrarekin ari nintzen ni lanean, eta ikusi nuen alde ez zela hainbeste. Orduan irabazteko aukera handiak genituela ikusi nuen.

Olasagastik ez omen zuen



JON URBE / ARGAZKI PRESS

APUSTUA

«Ez genion ihes egiten utzi; hori izan zen gakoa, izan ere, alde gero eta handiagoa duenean hazi egiten da»

besteetan adinako maila eman.

Guk ez genion ihes egiten utzi, gertutik jarraitu genion. Hori izan zen gakoa. Izan ere, alde gero eta handiagoa duenean hazi egiten da Olasagasti, eta gure kasuan bezala, alde hori txikia denean jaitsi egiten da. Baina nik ez nuke esango bere maila erakutsi ez zuenik.

Azkenean hiru minutu baino gehiagoko alde.

Ez genuen espero hainbeste aterako genionik; izan ere, bagenekien Olasagastik zenbat denbora behar duen 20 kanardiko ebakitzeko. Berak lehenengo proban guri denbora

LASAITASUNA

«Nire maila eman nuen; normalean urduriago jarri ohi naiz, baina igandean inoiz baino lasaia aritu nintzen»

gehiago aterako zigula uste zuen, baina ez zen horrela izan eta goruntz egin genuen bigarrenean, hau da, zutikako proban.

Jendeak ere bera hartzen zuen faborito.

Hala da. Hasieran nabarmen zegoen dirua Olasagastiren alde, baina lan erdirako jendearen iritziak aldatzen hasiak ziren.

Zeure burua nola ikusi zen nuen?

Nik nere maila eman nuen. Normalean, plazetan-eta urduri jarri ohi naiz, baina igandean inoiz baino lasaia aritu nintzen.

Zaleen animoek lagunduko zuten horretan.

Oso ondo portatu zen jendea. Hasieratik amaierararte asko animatu zuten, eta hori eskertu egin behar da.

Errebantxa kontuak entzuten hasiak dira. Olasagasti jarri al da zuekin harremanetan?

Berak guri zuzenean ez digu ezer esan, baina entzun dugu zerbait. Errebantxarena botatzen badigu, ez dugu inolako arazorik izango aurrera egiteko. Hori bai, hitz egin beharko genuke.

Egitekotan, noiz egingo litzateke?

Datorren negurako utzi beharko genuke. Izan ere, udan erakustaldiak izaten dira, eta txapelketekin ere hasten gara. Hala ere, bi urte daramatzat jarraian atsedenek gabe, lehen-dabizi Mindediarekin apustua eta orain Olasagastirekin izan baititut, eta ondorengo bi neguak-edo atsedean hartzea gustatuko litzaidake.

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Inkesta. «Zer iruditzen zaizu Tolosako Udalaren kultur ekitaldien eta jardueren eskaintza? Zerbaitetan hobetu behar al du?» Hauek dira orain arte jaso ditugun botoen arabera, emaitzak:



LEITZA ▶ KULTURA

Jendaurrean gozatzuz bukatu dituzte euskal kantu jaialdiak

Leitzarrentzat, «interpretazio heldutasunaren» eta «talde lanaren» aipamenak

JAIONE ASTIBIA

Igande eguerdiartean egin zuten, Iruñeko Gaiarre antzokian, aurtengo Nafarroako Euskal Kantuko Haur Jaialdien azken saioa, antzokiko aretoa tiki gelditu zelarik, «sekulako giro polita» bizituz, bai kantarien artean, baita entzuleen artean ere.

Azken saio honetan Nafarroa osoko 14 herritako 172 kantarik parte hartu dute, 6 urteik 15 urte bitarteko haur eta gaztetxoak denak.

Denak sarituta

Taldeka nahiz bakarka, 22 kantu eskaini dituzte eta guztiek jaso dute beren aipamena: «Saio guztietan bezala, bukarakoan ere aditu talde bat lanean aritu zen eta koreografia, ahotsen oreka, erritmoa, mezu, interpretazioa... halako ezaugarriak errepertatu zieten, eta partaide bakoitzak zertan



Bizitzarekin dantzan kantatua eskaini zuen Leitzako taldeak, batzuk kantuari helduz eta besteak pianoa joz. HITZA

nabarmendu zen, haren aipamena jaso zuten, guztiek berea», azaldu zuten.

Gaiarre antzokian, hantxe izan ziren Leitzatik joanak bi kanturekin, hainbat gaztetxo. Bakarlarri gisa aritu zen Garazi Erbiti, Benito Lertxundiren *Baldorba* kantatuz, Josune Gerra, gitarra joaz lagun zuela. «Hain dotore eta sentimenduz bete-

rik» kantatu zuen, ezen adituen mahaiarengandik «Interpretazio heldutasunaren aipamena» jaso baitzuen. Bestalde, Erleta eskolako 6. mailako ikasleek osatutako taldeak Urtz taldearen *Bizitzarekin dantzan* kantatu zuen: Ainara Saralegi, Patrizia Vicente, Miren Juantorena, Izar Lizartza, Arantzazu Lizartza, Maialen Moreno, Ga-

razi Erbiti eta Josune Gerra kantari eta Iban Portas pianoan. Hauek halako taldea koordinatzen eta batera eramaten egindako ahaleginarengatik, «talde lanaren aipamena» jaso zuten.

Aurten, Nafarroako Euskal Kantu Jaialdien helburua «kantarekin ongi pasatzea» izan dute Kantuzale elkarteok, eta lortu dute.

Baikortasunez

«Lehiaketaren kutsu guztiki kenduta, haurrak gustura ikusi ditugu egindako jaialdi guztietan, kantuekin gozatzuz», azaldu diote HITZARI: «Partaide bategen beste animoak emanez, euren artean laguntasunezko giroa nabarmendu da, eta ondokoa ez dute arerio modura ikusi. Gainera, haurrak lasaigo ere zeuden eta kantatu ere hobeki kantatu dute. Oso balorazio positiboa egiten dugu. Jaialdiarekin asmatu dugu».

LEITZA ▶

Kontseiluaren Euskal Tonbola iritsi berri da Leitzaldera ere

Herriko tabernetan jarri dituzte salgai euskararen aldeko boleto saridunak

J. ASTIBIA

Apiriletik gelditzen den epean eta maiatzean zehar, Kontseiluaren Euskal Tonbolako zenbakiak salgai izanen dira Leitzako tabernetan.

Kontseiluak «euskararen normalizazioan aurrera egiteko proiektuekin jarraitzeko» baliatuko du tonbolatik aterako duen etekina. Orain, Euskal Herri osoan bira egiten dabilen ekimena Nafarroara aliegatu berria da, herrialdeko 120 tabernetan eskuragarri izanen direlarik boletoak, euro baten truke.

Sarien artean, «Mediterranioan zeharreko kruzeroa, argazki-kamera digitalak, talasoterapia sarrerak...» daude, unean berean eskuratuko direnak. «Euskaragatik, erosi eta hazkatu: zorte on!».

IGERIKETA ▶

Leitzaldeko igerilariek lanean jarraitzen dute

Cantabrian (Espainia) lehiatu berri dira

J. ASTIBIA

Lehenengo asteburuan, hil honen hasierakoan, Cantabriako (Espainia) Camargo herriko sarietan parte hartu berri dute eskualdeko lau igerilarik: Aresoko Zuriñe Goikoetxea eta

Leitzako Julen Sagastibelza eta Adur eta Judith Saizar anai-arrebak.

Laurak ere Irurtzungo Itsezia igeri taldekoak, bosgarren kide batekin, herri hartako sarietan parte hartu zuten gazteek, maila absolutuan (Judith

hek infantiletan egin zuen), Euskal Herriko joandako eta hango 300 igerilari baino gehiagorekin batera.

Sagastibelzak, 100 metro tximeletan eta 200 metro krollen parte hartu zuen; A. Saizarrek, 100 eta 200 metro bularretan; Goikoetxeak, 200 metro estilotan eta 200 metro krollen; eta J. Saizarrek, gazteenak, 400 eta 200 metro, biak kroll estilok, hau da estilo libreak, beraz.

Jakinarazi dutenez, saririk eskuratu ez bazuten ere, laurak ere bakoitzak beren marka pertsonalak hobetu zituzten



Itseziako bostak, igerilekuan; eskuineko laurak etxekoak. SAGRARIO LASARTE

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

AGENDA ▶

ANTZERKIA

Anoeta. *Ingurumena* antzezlan. 11:30ean, Ikastolan.

DEIALDIAK

Anoeta. Festa alternatiboak antolatzeko bilera. 19:00etan, udaletxean.
Baliarrain. Hilaren 30ean txekor jatea antolatuta dute Atari soro pilotalekuan. Txartelak salgai jategian, 25 eurotan.
Tolosa. Tolosako Batasunak deitutako herri batzarra. 20:00etan, Kultur Etxean.
Tolosa. Gazte Topagunearen ekintzak: 11n basket 3x3 tornea, brotze, txapa, orratz... tailerrak; 12an irteera Biarritzeko kartsetara; eta 23an irteera Txuri Urdinera. Izen-ematea, Kultur Etxean.
Tolosa. Oargi mendi elkarteak Sierra Nevada (Espainia) mendi irteera antolatuta du hilaren 13tik 17ra. Mulhacen eta Veleta mendiak igoko dituzte. Informazioa eta izen-ematea 637 83 03 80 telefono zenbakian.
Tolosaldea. Gazte Topagunera (Etxarri-Aranatz) joateko autobusak antolatuta dituzte. Izen-ematea, ohiko lekutan. Bihar da horretarako azken eguna.
Villabona. Agenda 21 prozesuaren barruan, diagnostikoaren ondorioak eta helburuak aztertzeko herri batzarra. 19:30ean, udaletxean.



Alos Quartet-en doinu goxoak Aranburu Jauregian

TOLOSA ▶ Alos Quart eskaintzekoa zen emanaldiak piztu zuen jakinminaren erakusle, jende asko bildu zen ostiralean Aranburu Jauregiko aretora Xabi Zeberio tolosarraren (eskuineko argazkian) taldearen zuzeneko kontzertua jarraituzera. Tolosan jotzen zuten lehendabiziko aldian zen, eta bai musikariak bai ikus-entzuleak gustura ziren saioaren amaieran. Zeberioekin batera, Ricardo Cuendenek, Francisco Herreroek eta Pello Ramirezek osatzen dute laukotea. Taldearen izen bereko diskoko lanak izan ziren entzungai Aranburun, horietako batzuk Zeberioek berak konposatutakoak. JOXEMI SAIZAR



ERAKUSKETAK

Alegia. Jesus Lopez Zulueta margolanak. Hilaren 22ra arte ikusgai, Jubilatuen tabernan.
Tolosa. *De rebeldia y poesia.* Angela Mejias eta Antonio di Bellonio artisten argazkiak. Maiatzaren 5a arte, Aranburu Jauregian.
Tolosa. *Poesia movil.* Enrique Zalduaren margolanen erakusketa. Hilaren 22ra arte ikusgai, Aranburu Jauregian.
Tolosa. *Azala.* Joseba Mercaderren argazkiak. Hilabete osoan ikusgai, Lanbroa tabernan.
Tolosa. Seve Iglesiasen margolanak, Sorron enmarkazio dendan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.
Tolosa. Santa Maria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.

IRRATIA

Txolarre irrateria (107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZAREN errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
18:00-19:00. *Adi Guri* irratsaioa, Anoetako Herri Ikastolako DBHko 1. eta 2. mailako ikasleek prestatzen duten saioa.
21:00-22:00. *Zaharrak berri,* Irulegi irratiak eskainitako saioa, Arrosa Irrati Ekoizpen Zentroaren eskutik.
22:00-23:00. *Street noise.*

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Julen eta Alaitz.
Atzo 4 urte eta gaur 7 urte.
Zorionak familiaren partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza Leitza Udaletxeko bulegoa

hitza agurren tartea **Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...**